EPALLA
24
Astartea
Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru ile.
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idaziki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzefijetakuak ... 112,50 " "
Beldayen itundubi

XXV urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° | 234 Ikazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.253 zenbakija

Gayak

ZABALBIDE'N

Ona emen, irakurle, igesi dan igandian Zabalbide'ko pelota-toki begikuan jokatu ziran jokaldijak:

Bigarren malakuak: Begoña ta Balmaseda; Lezama ta Sabin-Etxia; Eran dio-Bekua ta Erandio-Goikua.

Lenengo malakua, Otxandiano ta Mendexa.

Iralagoitia ta Lizaso, begoñarak, 21 eskuraldi egin ebezan; Balmaseda'ko Abad anayak, 22.

Belasko ta Villanueva Bilbao'ko Sabin-Etxia'kuak, 13'an geldidu ziran; Dañobeitia ta Aretxaga lezamarak, estera, 22'jan.

Urkitza ta Perez--Aramendi Erandio-Bekuak, 18 eskuraldi egin ebezan bitartian, Bagan eta Ortuondo Erandio-Goikua'k, 22 egin ebezan.

Eta azkenez, Mendexa'ko Kortazar eta Bengoetxea 19 eskuraldidan lagata, otxandijotarak, Egia ta Otalora kementsubak, 22'ra iges-egin eben.

Jokaldijok gogorak ixan ziran, bata bestiak be.

Ogoren artian gogora ta luzien artian luzia, baña, azkenengua ixan zan: luziaren luzez, gogaikarija.

Mendexarak, Orozko'ko zekorak zezen-zelaira baxen ordongo ta zalapartari burruka-landaratu ziran, eta zortzi jaraiko eskuraldi irabazi. Baña ez berez. Zugazpeko kerizpe atsegiñian etzanda egonda ez, peloteari zintzo, kementsu ta gogor erasota baño. Otalora atzelari trebiaren besokadak, Otxandijo'ko untzegin zaren burdiña gorijaren ganera jausten ziran malukadak baño be gogoraguak ixan ziran. Baña alperik. Beste leku baten jausita burdiñarik senduena, bigundu, ta atxik gogorenak biffinduta lagako ebezan malukada areik, mendexaren ekintzan lorratzik be ezeben isten: galtzaidu otzaren ganian jausten ziran malukadaen antza erakusten euskuben.

Eten bako ekiñak biguntuden eztabenik baña eztago. Eta otxandijotaren eten bako ekiñak be, bere ondorena ixan eban. 8 ta uts egozala, bederatzi ta uts jokua iminteko ustez Kortazar aurelari artezijak atara eutsen peloteari, eraso-aldi gogorak-egin ondoren, Otalora kementsuak azkena emon eutsan, eta lenengo eskuraldija irabazi.

Ondiño be, baña, mendexarak, Ereño-zarreko atxak baño be gogorago egosan. Eta urengo eskuraldija be eurentzako ixan zan.

Ekin eta ekin, baña, eskuraldi bakotxari, bost, amar, amabost iroiren eta geyago iraunazuaz, atsaldeko ordu bijetarako, amazortziña bardinduta jaditxi eben.

Bigarren bardiñaldija emeretziñakua ixan zan, bata azkenengua be, beste biru eskuraldijak otxandijotarentzat zenbatu ziran-eta.

Lau jokolarijak egozan nekatuta, etenda. Gustijen artian nekatubena, baña, Mendexa'ko Bengoetxea atzelari txalogarija ixan zan.

22'garen eskuraldija otxadijotaren alde zenbatu zanian, an atara zan txalotsaren oyartsuna, Otxandijo'n be ondo entzungo ebela-ta gagoz. Irebazi be egin eben. Olako jokaldi luziak, baña, bazkal-aurretik ikusteko baño, ondo bazkalduta gero ikusteko egokijaguak dira. Jokaldi edera ta ikuskarija zan, ixan, baña zan luzia zalako, gogaikarija be bai.

JON DEUNEN TXADONAN

Bilbao'ko Emakume Abertzale-Batza'k eralduta Onaindia'tar Alberta jaupari argi ta ikasijak oguzten dauzan itzaldijetatik irugarena, igazi dan igande gabekua ixan zan. Itzaldi edera benetan, baña bai garatza be.

Irugaren eguneko itzaldijaren gaitzat, kistar-ikasbideko seigaren agindua artu eban; aragikerija.

Eta gai laban onen jarai, gixarte-ziar edatu zan; gastedi-arte-ziar igaro, eta sendirik kistar-onbidetsubenetaraño eldu. Eta danetan—, ¡olango negargarirak!—oben lixun oren lorratzen bat idoro eban: ¡senar-emazte kistar-kistaren artian be bai...!

Oben onek, dan lixuna dalako, ukututen daun lekuban beren lixun-orbana isten dau.

Gastedijaren ixurija; sendijen-arteko zoritxara; jakintsuben ergelkerija; indartsuben aulkerija ta zoro-erijaren urbegija be, aragikerijaren semiak. lixun-lorratzak eztiranik, ¿zelan ukatuteko?

Izlarijaren abotsa gafaztubax dua; bere oyartzuna Atsegin-baratza deunaraño eldu da, ta gure lenengo gurasuak euren lenengo oben itxusijaren lorratzai begira iminí dauz. Atsegin-baratzean sortu zan obenaren lorratza, oñik-oin gixaldijak-gixaldi igaruaz gu[illegible]egunetaraño eldu da.

Eta lixuna[illegible]danez ganera zitala dalako, Adan [illegible]Ebe'gandik asita gaur-arte ixan [illegible]ixaki gustijak zirikatu dauz, [illegible]eyenak orbandu be.

Dabi, Goik[illegible]zkidia ta bakaldun alts[illegible]un itxusi orek kutsutu e[illegible]op biurtuta iminí. Santzon, [illegible] gusten eredua, Onaindia i[illegible]argijarenespanetan indargetuta da[illegible]usgu, zentzuak iges-eginda ta begijetako argija g[illegible]duta. Indar-bidez iñok tolestu ezin ixaeban gixona, emakume makal batek bigundu eban, eta lur-jota ezetarako gauza etzala laga.

Salomon jakintsuba be, Alberta jayuaren abotsak, lixun-oxiñean mustian dabilala erakutsi dausku... ¡Lixun-eztena dan zorotza...! Jakintsurik-jakintsubenak zirikatu dauz, indartsurik-indartsubenak zauritu ta bere menpeko biurtu. Eta garbitasunaren antzikurak ixan ziran donien lekaroetako lexa-zulo bakartijetaraño eldu ixan da, eta Andoni, Bernarta eta Bedita deunen garbi-asmo efotubak lau orijan ikaraz iminí.

Iñoren laguntza barik bera berenez edonora eldutako gai dan lixunkeri ori, leku geyagotara eldudagijantzat bidia efeztuteko eguak iminten diñarduben gixaki ezeskarijekañe be Alberta jayuaren abots salatarija eldu da. Aragikerijarako bidiak efeztuten dabiltzazanakañe: idazti zikiñak idatzi; irudi lixunak edatu ta aragikerijaren salokari egin diranakañe. Salokari iguingarijok, euzkotaron lotsagari geyagorako, ementxe Bilbao'n berton ikusten dauz, Kistar eredu ager tuten dogun Bizkai'ko uri nausijan.

Lotsagaritzat etsiten eban, baña egitza autortu.

Eta oben itxusi oren ondoren yatorkuzan alortatzat, ero ta alotzez betetako zoro-etxiak ;amago-etxiak; ata ez ama nortzuk diran ezatakijezan sasiko ume zurtzat eta beste zoritxar-bide asko.

Onaindia izlarijaren abots garatzak, gixarte-sokondo gustijak astindu ebazan, bata "katoliko"-antzo, Urtzi-zale agertuten diran jauregi-areto ta etxe-zuluetaraño be. Eta eldu ixan zan leku gustijetan zeozer idoro eban. leku gustijetatik aragikerijaren kiratsa, lixunkerijaren ustel-sundia jaso ta edatu eban. Azaletik zitorijak dirudijen kistar-eredu lez agertzen diranak be, barutik, txari-kortatuta idoro ebazan, ¡ustelduta...!

Ustelkerijaren kirats ori gixartetik uxatuten eztogun artian abendearen garbitasunik be eztogu lortuko, irakurle.

Beraz, abenda-zale agertzen garanok, usainmenarentzat edena dan kirats ezeskarijori gure-artetik uxatuten alegindu biar gara. Ori egiten eztogun artian, ba, zitori zuriz jantzita gixarteratuten ba-gara be, Onaindia izlari artezaren abots garatzat, ustelduben artekotzat salatuko gauz. Garbijak ixanten alegindu gadixan, irakurle...

JAUPA IXILA

Atzo goxeko zortzi ta erdijetan, uri onetako Jon Deunen txadonan, Horn eta Areiltza'tar Joseba gure aldun matiaren osasun-aldezko jaupa ixila ixan zan.

Jaupa au, uri onetako Euzko-Gastedija'k eraldu eban. Eta ori zala-ta, Bilbao'ko Jon Deunen ertxadon begikua, sarera-atietaraño beteta ikusi zan.

Jaupea, Isusi'tar Augustin txaunburu agurgarijak egin eban.

Goiko Jauna'k, Jeltzaliak euren aldun matiari bijotzez dopaltsoen osasuna emongo al-dautso.

Bere guria egin bedi, ba, donokijan lez ludija be.

Uribitarte'tar Ibon.

Ederto

Geure begi-begiko dan "Ekin"-ek, be, zartada bat emon dautse kestore lotsa-galdukual. Ara asteroko eder oren itzak:

"Demokrazia", askal, eri agintaritza edo gura dozun ori, irakurle, abo beteko itza dozu, gero. Madrid'eko agintariak maite ei-dabe. Eta oren maite dabelako, Euzkal-Eriko Aldundietan, Diputaziño'etan "kestor" batzuk kendu... ta beste batzuk jari dauskuez.

Aldundiak, ¿nok ez daki?, erki-ogasunen ardurea eukiteko dira, ogasunok ondo zaintzeko. Eta ogasunak erkiarenak ba'dira, erkiak berak baño ez dauko bere banakariak aututeko eskubiderik.

Laterak beragandu egin gura dau al dauan guztia ta oles nok egirik ezpadau, erazkiro lortuko dau bere gurea. Eta Gobernuak, berak, autu dauzan gizonak, eskar ona agertzeko baño ezpada be, eztautsoe ezi aztunik ipiñiko. Ez deritxazu? Eriak, ba, berak autu bear leukez beretzako banakariak.

Noiz arte jasan bear ete dogu au guzti au?"

Jaupa barrija

Gurutze Deuneko Pantzetar Lekaimetxian, Begoña'rako maladi-bidian, bere Jaupa Barija esango dan Zubieta'tar Sabin Aba Pantzeskarak ila onen 45'an, Andra-Mari egunian.

Lekaimetxe oretako Lekaime - buru danaren lobia dogu Arantzazu'tik datoren jaupa bari au. Bere aite - ama bitxi, Iraguen'dar Yon eta Zabalandikoetxea, aitata-amamak, izango dira, eta euzkerazko txonitza egingo dau bertan Amunategi Aba entzutetsuak. Zelaya Aba, Arantzazu'ko ereslari budanak, lagunduko dautso bere Jaupa bari oretan.

X.

Euzkotar Umientzat

Matalene'ren egitada txarra

Arritokieta

Amama, zion Matalene'k.

—Bai, ene arkumetxoa.

—Amama, gauza bat esan bear dizut.

—Esan ba, polit orek.

—Baña oso gauza txara da.

—Esan, esan, maitetxo orek, bai dakizu amamak ilobatxoaren biotza ondo ezagutu oi degula, antziñako denboran geu ere ilobatxoak izanduak gera ta, zeu bezelaxe.

—Amama, bai aldakizu nere aizpatxoak zer egin zion atzo nere andereari?

—Bai, bai, ondo dakit, erantzuten dio amamak ifibareka, anka bietatik eldu ta al zuan indarik aundienakaz, maya jo eraso.

—Amamatxo, burua erdibitu zion.

—Bai, ene arkumetxoa, ikusi nuan. Baña zuk ondo dakizu, umeak orelako gauzak zer dagiten ez dakielarik egin oi dituztela. Txikia baita zure aizpatxoa!

—Bai dakit, bai, amama, baña ori ta guzti ere atzo egun guztian neure aizpatxoa gorotatu egin nuan, eta gaur goizean...

—Gaur go.zean? Zer egin dezu ba gaur goizean?

—Gaur goizean neure gorotoa ase det.

Itz abek esanaz, Matalene'k bere burua eskuaz estali eta negarari eman zion.

—Nola ase dezu ba zeure gorotoa? Zer egin dezu? Ez aldakizu ba iñori gorotoa izatea oben aundia danik?

—Bai, amama, baña ara zer egin detan. Neskameari esan diot neuk emango diotala bazkaria umeari, eta gero... ai ene amamatxo, nik egin detan gaiztakeria! Neskameak begiratzen ez zuan guztian, kutxariakaz artu esne sopak eta umearen españetaraño eramaten nituan. Umeak, txorikume batek bezela mokoa luzatzen zuan, baña nik orduan kutxariaren kirtena sartzen nion auan...! Gozeaz amorratzen utzi det ume gaxoa.

Neskameak naikoa lan izandu umeari lo eragiten. Bai ba, gose zan da ez zuan lorik egin nai. Baña, izketan ez daki ta ezin esan ezer, eta ni pozik.

Noiz edo noiz loak artu duanean, juan naiz bere zeazka ondora. Ai, ene amamatxo! Ikusi ba'zenduan ume gaxoa, matralean bera malkoak dituala, eta lo egon aren sotinka batean!

Au ikustean biotza erdibitu zait, andereari burua bezelaxe, eta ume gaizto bat naizela ikusi det, eta okerkeri aundi bat egin detala ezagutu ere bai.

Amamatxo, nik ezin aizpatxoari barkaziorik eskatu, ez du ezer ulertzen da. Baña poz aundi bat berari ematea bururatu zait. Bai dakizu nolako begiakin begiratzen dion nere andere aundiari. Uste det poz galanta artuko leukela baldin berak nai dion guztia egiteko utziko ba'nioke.

Puskatu egingo dit, baña ez zayo arduririk. Eman egin bear diot esnatzen danean, amama. Baña aurriez soñeko beria jantzi bear diot, ederagoa egon dedin. Nere aizpatxoak izango duan poza, amama, eta ni izango naizen zoriontsua!

J. GIRARDIN.

BASERRITARRAK

Kodañak, atxurak, aizkorak, arantzadun alambria, eta burdiñezko saretijak erosi gura ba-dozubez, Bilbao'ko, Ribera txaideko 19'ra, "El Candado", burdin-saloki ra jo-egixube.

Deia

1935'ngo. "KIRIKIÑO SARIA„'RAKO

Aurtengo jorrailaren 30'garenaño "Euskaltzaleak" idazlari jaunari igorri litzaizkioke, 1935'garen urtean EUZKADI'ko eguneroko edo aldizkingietan itz lauz idatzitako edozein artikulo "Kirikiño Saria" deritzaion txapelketarako.

Igaz, Azpeitia'tar Julene andereak sari berezi bat eskeñi zuan 1935'garen urteko euskal idazleentzat; alegia, arek irabazitako "Kirikiño Saria" beriro "Euskeltzaleak„'en eskuetan utsiaz bazkun onek idazle trebeanari eman zezaion.

Beraz, igaz argitaratutako idazkiak bai "Kirikiño Saria„'rako bai "Afitokieta Saria„'rako igorri lezazteke idazleak; bañan berezik eta garbi zer sari irabasteko agertzen diran adierazlaz.

Idazleok jorrailaren 30 arteraño zai gaituzue.

EUSKALTZALEAK.

Donostia. Diputación de Gipuzkoa.

Auteskundiak

Auteskunde edo botaziñuak lastel doguzan ezkero, geure Alderdi'ko geyenak batzartu dira. Edo batzar-deyetan dagoz. Batzar oneik garantzi andija dauke, udal-auteskundietan zer egin eta zelan jokatu biar garan azterututeko.

¿Bakarik? ¿Iñogaz? Geure agintarijak doguz, agintari zintzuak eta alderdikide gustijak jakin biar leukieolako gauzak agintarijak erabagi biar dabezala. Ez beste iñok. Alderdikide gustijok agintari batzuk autu gebezan eta eurai geure konpiantza gustija emon geuntsoen. Beraz euren eskubetan itxi daiguzan beste gauzok, be.

Euzkadi'rentzat onena ixango dana, axe ontzat artuko dabe geure buru diranak. Oregatik etxakuz atsegin batonbatzuren itzak: oneikin edo bestiakin alkartu biar gintzakez. ¡Ago ixilik! ¿I zer az? Geure Uri-Buru-Batzar eta Bizkai-Buru-Batzara'k erabagiko dabe zer egin. Beste era batera jokatzia afokerija litxake.

Auteskunde-aurregunetan berein geuganatzen dira. Edonoren itzai jaramon egiten dautsegu. ¡Ez olakorik! Ziñegotzijak edo aldunak ataratia geure zeregin gurena ba'litz... baña beste arlorik ba-daukogu. Orain geuganatzen diranak urte osuan geuganatuko ba'lira. Euzkadi'ren izkuntza landu, geure akilana berriztu, euzko-erijaren eskubidiak zaindu eta abar. Ezkadixan lar burukomindu ziñegotzi batzuk gorabera.

Eta alderdikide batek eztaike olakorik uste-ixan. Eraiguntzea daukogu; bertan argi esaten dauskube zelan jokatu biar dogun, be. Beraz batzaretan astirik galdu-barik, ixilean urten gadixan, itxaroben osua agintarijengan daukogularik.

Deun Joseba eguna

Urte gustietan lez
Joseba egunian
Oturantza egin zan
Artabe'n etxian.

Ta jakin dagixuen
Bertan jazo zana,
Beingo baten esango
Dautsuet dan-dana.

Umiak esan eben
Gaur aiten eguna,
Ospatu biar dogu
Kistaren antzera.

Ogetik jagi eta
Lenengoko lana,
Jaupa entzun, ta gero,
Artu Gure Jauna.

Etxera eldu eta,
Umiak aitari,
"Zorijonak aitatxu,
Dopaltzuguz zuri."

Aitak dirautse ordez,
Eskerak danori;
Eta Joseba Deunak
Zagitsen onfsi,
Otoi-egin dayogun
Josu Umiari.

Bazkaltzeko ordua
Ein zanian eldu,
Amasaspi maikide
Gintzazan alkartu.

Bazkari ugarija
Napar ardautxuaz,
Ta ganetik akeita
Txola ta txokorraz.

Bazkarija amaitu
Zanagaz batian,
Iru txistu-jotzarek
Jo eben atian.

Au entzun ebenian
Barruan ziranak,
Esan eutsen eurari
"¡Aurera mutilak!"

Asi zirian onek
Tanboliña joten,
Eta beste gustijak
Dantzan jolastuten.

¡A zan egun alaya!
¡A alaitasuna!
Artabe'ren etxian
Guk ixan genduna.

Gustija amaitu zan
Ederto batian
Bariro egiteko,
Datoren urtian.

Txindor Kumia.

rakurri EUZKADI

Errijetatik

MURELAGA

EUZKEL-IXENAK.—Ilabete ta erdi ingeru da euren lenengo sendija ixan ebela alabatxu bat, Barenetxea'tar Markel eta Erementeria'tar Kepe senar-emazte gastiak eta ugutzan Garbiñe euzkel-ixen polita ezari eutsen.

Aranburu'tar Polendiñe emakume abertzale zintzuak eta bere senar Malaxetxebaria'tar Jon Imanol'ek ixan dabe euren bigarren semia eta ugatzaueran Koldobika euzkel-ixen begikua esari eutsen. Ama-ama bitxijak Aranburu'tar Timota abertzale sutsuba eta Itza'tar Miren Domeke izan ziran.

Bata Ikaran'dar Eusebe eta Alberdi'tar Simone, Bengoetxe'ko basetxeko senar-emaste gastiak be euren alabatxu barijari Josebe euzkel-ixen polita esari dautse. Onen ama-ama bitxijak Urkidi'tar Jon eta Josebe ixan ziran. Zorijonak ba guraso eta ama-ama bitxi danori.

JAYOTZA.—Abertzale zintzua dan Landeta'tar Miren Domeke eta bere senar Kareaga'tar Koldobika, Narea-benguak izan dabe euren lenengo sendija alabatxu bat. Zorijonak.

GEXORIK. — Eri onetako ziñegotzi eta abertzale zintzua dan Omar'tar Joseba'ren emastia Garatea'tar Jakinde gexorik aurkituten da. Ainbat lastelen osatutia opa dautsagu.

ERIJOTZA.—Kistar on bateri jaokon legez Ikurton Deunak artuta Jauna'ren besuetan il da Arate'tar Estepan, Arkoideko gixona. G. B. Atsekabietan lagunduten dautsegue beren sendiko danari.

Ganurkulu.

MAÑARIA

TXAUNBURU BARIJA.—Gure Gotzain agurgarijak, eri ontako txaunburu Iturbe'tar Ixidor gernikar abade gastia egin dau. Abade jaun onek, lengo igandez, amaretako mezan, erijari etorerako agurra egiñaz, berbaldi gozo, samur eta edera egin eban.

Zorijonak jauna; eta ondo etorija eta ondo artua ixan bete...

Aingerua zerura. — Igande goxian igon zan zerura, Goti'tar Josu-Bijotza euzkel ixendun mutiko polita. Goti'tar Pirmin eta Goti'tar Agate senar-emazte aberkidien semetxua. Jaungoikuak zeruan aingeru bat geyago.

JUAN-ETORIJAK.—Bilbao'ra juan ziran Lete'tar Domeka ta Solaguren 'dar Andere senar-emazte aberkidiak.

—Abadiano'tik etori zan Lasuen'dar Balbin.

—Lengoan egon ziran emen Ortuoste'tar Terese ta Metzo'tar Terese ixeko-ilobak.

—Irastortza'tar Miren Begoñe ta Gangoiti'tar Sorne emakume zintzuak gariximako igande gustijetan ona etorten yakuz. Gariximia igaroteko alagalako "paragia" da ixan be au...

EZTLJA.—Aurten, igaz baño naiko gitxiago, Abua gozotzeko lain baño ez. Libria, amalau txakur eta erdijan saltzen da.

TXARINDULARIJAK. — Igaroriko

Araudi alde

Euzko-araudijatzazko gauzak bide onez duaz. Iñoiz ezkeban uste ixango olako berotasuna erakusten emongo ebela ezkertafak, baña egiz dabiltzalakuan gagoz. Gipuzkoa eta Araba'ko aldundi-ixunak Madrid'era bialdu dabezan ufutidazki edo telegramak poztu gabez.

Madrid'etik datorzan aldunak, be, diñuanez, ango geyenak euzko-araudijaren aldez dagoz. Batez-be komunistak. Carro'ren itzak argijak ixan dira: Euzko-araudija berialakuan lortu biar dogu.

Baña igandez gauza bati oratu dagijogun. Bilbao'ko Euzkalduna pelota-tokijan batu ziran Frente Popular deritxon alderdijetako gustijak. Mitin edo itzaldi garantzizkuak euki ebezan. Pelota-toki gustija bete-beterik eguan. Lafañaga komunisteak eta beste iru-lauk itz-egin euskuben. Euzkadi'tzaz mintzatuten ziran eta goralben andijak eukezan geure eri onen aldez.

Azkenez Varela jaunarengana juan ziran oldalako ibilkundian eta erabagi batzuk aurkeztu eutsezan. Amabost akordu ziran eta amairugarnian auxe iñoen: "Discusión y aprobación inmediata del Estatuto vasco". Izpar txara ezta, alderdi gustijetakuak, ba, araudi-aldez dagozala dirudi. Garantzi andija emoten dautsogu eskakixun oni, Frente Popular deritxonekuak, ba, gauf agintari dira.

Varela jaunak ontzat artu ebezan eskakixun areik eta beriala Madrid'eratuko ebazala esan eutsoen gustijai. Araba'ko aldundijak onetsi dauna eta igandeko izpar au pozkarijak yakuz.

Eskumarak ezik, beste gusti jak araudi-aldez datorz. Eskumarak ez, orek eri gustijen eskubidien kaltez baño eztira jagiten. Agintari ixan diranian zerbait egin egiklen Euzkadi-aldez, baña euren gorotuak begijak itxi-eragiten dautsez. Bide orez buaz eta azkenian ikusiko dabe zer jazoko yaken. ¡Bai orixe! Bitartian itxaropenez gagoz. Edonoren eskutik ba-datof, be, gauza ona artu daikegu; zegatik ez? Euzko-ixakerea obeto ulertzen dabe ezkertaf askok, eskumarak baño.

¡Tamalgarija!

igandez Urkiola'ko aldatzian txifinguts-ariñeketa ospatu zan. Ori zala-ta bertara lagun pilo galantak etori ziran. Etori ziran asko ta askori bafiz, nundik-norakuak ziran be ezin zeizkijuen igari... Orratik euren artian bat ezagutu gendun; Zugatzaga'tar Iñaki aberkidia "Algori" zanaren anaya.

Aberkide zintzo onek, euzkeraz para-para egiten eban; baña... beste batzuk, ukonduetatik be erderia darijola ibili ziran... Olako egunetan oxe jazoten dok ba, erderia ta erderia entzun biar...

KUKUA.—Udabarijaren pozera laster agertuko yaku. Igaz, ez agur eta ez adio, bape jaramon barik aldendu zan txori "tranposuau" aurten zelako arpegijaz agertuko ete yaku...? Dana-dala, neuk beintzat, iñundik al-badot, zer jazoko be ogerlekotxu bat sakelian erabiliko dot; olan, "Ekin" asterokuaren eun-ogerlekuak sakeleratu al-ixaten badodaz edo..

Suberte apur bat eukiko baneu...

Mañariko.

GALDAKANO

Emen doguz bariro be auteskundiak. Batzun otsa amatu daneko bestiak ganera. Igaro diran aldun-auteskundiak garantzitsubak ba-ziran, oneik eztauke gitxijagorik. Oregatik gogor oratu dagijogun lanari abertzale gustijok. Udal-etxian geure gixonak nai doguz.

Eztagoz lotan, esan dauskubenez, eri onetako abertzale arerijuak, be. Gertakixunak egiten ei-dabiltz, baña eztauskube bildufik emoten, gustijen ganetatik jeltzaliak garale urtengo garalako.

ZAURITUTA.— Lantegijan eskuba zaurituta arkitzen da Artetxe'tar Permin, Gomuzio'ko Euzko-batzokiko arteskari bazkintzakua. Lastef osatu.

MUS-TXAPELKETA.—Igaro zan larunbatean emon yakon azkena Gomuzio'ko batzokijan aspalditxuban asi zan mus-txapelketeari, Amatu-ondoren Goikoetxea'tar Domeka ta Yugero-Goroztiza'tar Joseba txapeldun urten ziran. Eta uren edo bigaren Zarabeitia'tar Koldobika ta Onaindia'tar Ander. Euzko-jolas gustijei lez pozez amaya emon yakon.

"EUZKADI„'ri.—Ila onen bederatzijan Gomuzio'ko batzokiko Agate deunren taldiak emon ebazan EUZKADI 'ren idazkolan amar laurleko Euzko-Nekazarijen arpiderako, baña eztot ezer ikusi. Poztuko nintzake bari oregaz.

Basakiña.

Uara.—Gaurko zenbakijetan ikusiko dozuz. Banakolako jaunari itaundu dautsot eta antxe eukon Gomuzio'ko batzokijaren ixena. Beraz Euzko-Nekazarijen aldezko arpidian ikusi al-ixango dozu.—L.

MENDARO

ERIOTZA.—Gaxo aldi baten ondoren eleizakuak eta azken-laguntza artu-ondoren Jaunak Beraganatu du gure lagun maite zan Arieta'tar Kepa, 26 urtedun mutil gaztia. Bere eriotzak naigabetu gaitu ainbat eritar (Goian bego) Sendikuai laguntzen diegu samin-ordu onetan eta irakurle guziok otoiz bana Goiko Jaunari il danaren gogo-aldez.

NASKALDIA.—Sevilla'ra egun batzuk igarotzera juanak dira gure lagun diran Iriondo'tar Pantzeska eta Andoni euren emaztekin, Barenetxea 'tar Gergore eta K. Ondo ibili.

EZKON-DEYETAN. — Ezkon-deyetan arkitzen dira Bueno'tar Erikarta Donosti'ko osagile jauna eta eri onetako Zuloaga'tar Miren Koldobike andereñoa.

Kaiku.

Uara. — Aspaldion ixilik egon aiz, aizkide. Auteskundeak gertatzen ala? Ori ere lan ona dek eta guziok egin bear diaguk.—L.

APATAMONASTERIO

ASARERIK EZ.—Igaro dau asteko nire izparak dirala-ta asaretxo ibili ei-dira eregetarak. Eztot uste motiborik dabenik; broma'n esaten diranak, broma'n artu biar diralako. Ezetan eratu badot baña, parkatu, utz-egitia gixonena dau ezkero.

ERAKUNTZA BAT.—Abertzaliak—gaztiak batez bere—erakuntza guztiz kaltegari bat daukagu. Geugandik urin dabixan anai gaxuak geuganatu biarian, aldendu egiten ixan doguz goroto zital baten bitartez. Tamalgarija! "Atraer, siempre atraer"-dirausku Artetxe'tar J.'k "Euzkadi'k argitaldu dabe idazti txukun baten. "En todo vasco no patriota hay un patriota potencial. Todo depende de que se sepa atraerlo" — diñosku beratxuago. Aurera ba, mutilak bide ortatik, beti leku baten egon gura ezpadogu.

EZKONTZA.—Lengo larunbataz ezkondu zan Ariño'tar Eremige, "Elorrijo"ko neskatila liraña, Axpe'ko Paul deritxon mutil gaztiakin. Zorijonak eta ondo bixi.

"LAUAXETA"RI. — Eskerak, "Lauaxeta", erunetako aberkide guztijen ixenian. "Lauaxeta" agurgari eta ospetsubak aintxekotzat artzia asko eztimetan dogu. "Noiz batuko ete gara or?"—diñozu. Surru-murruak diñuanez.. Eri auteskundiak be ganian doguzalata... itzaldixoren bat edo...

Dana dala, eri onetako U. B. B.'ren eskubetan dago bai? eta eztago eskutxafetan, neure ustez.

Anbota.